

EZOHIKO ERREGULARIZAZIOAREN PROZESUARI BURUZKO INFORMAZIOA

Egoera administratibo irregularrean dauden pertsona migratuen ezohiko erregularizazio dekretuaren argitalpenaren aurrean, Udaletik honako informazioa helarazi nahi dugu:

Prozesuaren epeak

Prozesua ekainaren 30era arte egongo da irekita.

Egungo egoera

Une honetan:

- **Ministerioaren webgunean argitaratu dira erregularizazio-eskaeraren behin betiko eredu ofizialak**
- **Baita kalteberatasun-txostenaren behin betiko ereduak ere**, beharrezkoak diren kasuetarako.

Getxoko Udalak indartu egingo du **Gobelaurre Boluntariora Zentroan dagoen Informazio eta Harrera Bulegoaren** aholkularitza juridikoko zerbitzua, administrazio-egoera irregularrean dauden pertsona migratuen ezohiko erregularizazioari buruzko informazioan eta tramitazioan laguntzeko. Leku berean, **dispositibo gehigarri** bat jarriko du abian, aipatutako prozesurako beharrezkoak diren **kalteberatasun-txostenak emateko**. Helburua da informazioarekin laguntzea eta zuzentasun- eta zorroztasun-irizpideekin tramitatzen laguntzea.

Kalteberatasun-txostenari buruz

Dekretuak honako hau ezartzen du:

Kasu batzuetan, gizarte-kalteberatasunari buruzko txostena aurkeztu beharko da. **Honako hauek salbuetsita geratuko dira:**

- Aurretik lan egin duten edo besteren kontura lan egiteko asmoa egiaztatu duten pertsonak, lan-eskaintza bat aurkeztuz, edo norbere kontura lan egiteko asmoa dutenak, erantzukizunpeko adierazpen bat aurkeztuz.
- Familia-unitatearekin batera Espainian daudenak, betiere adingabeko seme-alabek edo desgaitasunen bat duten adin nagusikoek edo haiekin bizi diren lehen mailako aurrekoek osatzen badute unitatea.
- Nazioarteko babesa eskatzen duten pertsonak.

Txostena **aurrez aurreko hitzordu** baten bidez egiten da, eta bertan betetzen dira txostena emateko behar diren datuak.

Erregularizazioa eta aipatutako txostenak izapidetzeko zerbitzua **aurretiko hitzordua** eskatu ondoren eskainiko da, ostegunetik, hilak 23, aurrera.

Hitzordua **telefonoz** eska daiteke **94 466 01 52** zenbakian, astelehen eta asteartetan 9:00etatik 13:00etara, asteazkenetan 15:00etatik 19:00etara eta ostegunetan, goizez zein arratsalde. **WhatsApp** bidez ere eskatu ahal izango da, **747 42 42 87** zenbakian. Arreta apirilaren 24an, ostiralean, hasiko da.

Erregularizazio eskaerak tramitatuko diren beste leku batzuk:

Ministerioak hainbat bide jarri ditu izapideak egiteko:

- **Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalaren** (GSIN) Bilboko bulegoa (Sabino Arana etorbidea, 3). **Aurretiko hitzordua:**
 - ☎ **060** telefonoaren bidez
 - 🌐 Inklusio, Gizarte Segurantza eta Migrazio Ministerioaren webgunearen bidez
<https://www.inclusion.gob.es/regularizacion#solicita-cita>
- **Posta-bulegoak** (Algortako Torrene kalea 6 eta Areetako Santa Ana kalea 4), **Aurretiko hitzordua:**
 - ☎ **060** telefonoaren bidez
 - 🌐 Inklusio, Gizarte Segurantza eta Migrazio Ministerioaren webgunearen bidez
<https://www.inclusion.gob.es/regularizacion#solicita-cita>
- **Hirugarren sektoreko erakunde kolaboratzaileak** (Mujeres con Voz: erakunde kolaboratzailea eta RECEX zerrendan sartua), posta regularizacion@mujeresconvoz.com eta WhatsApp zenbaki bat (655 603 809) gaitu ditu.
- Mercurio plataformaren **bide telematikoa**
<https://mercurio.delegaciondelgobierno.gob.es/mercurio/>